

Sexualitatearen Koloreak gida aurkeztu dugu Legebiltzarrean

- Maialen Olabe, EGK-ko presidentak, eta Norma Ageitosek, Berdintasun teknikariak, martxoan ateratako gida aurkeztu dute
- Olabek “hainbat gazte, gazte elkarte eta eragilek gidaren oinarri den diskurtsoa eratzeko egindako lana” nabarmendu du

Gasteizen, 2017ko irailaren 19an. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) Eusko Legebiltzarrean izan da gaur goizean Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean egin zuen proiektua aurkezteko. Maialen Olabek, EGK-ko presidentak, eta Norma Ageitosek, EGK-ko Berdintasun teknikariak, egin dute agerraldian gidaren nondik norakoak, helburuak eta ideia nagusiak azaldu dizkiete.

Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean emandako azalpenetan Olabek azpimarratu du Sexualitatearen Koloreak gidaren abiapuntua “aniztasunaren kontzeptua LGTBI+ kolektibotik haratago identifikatzea” dela. “Aniztasuna zeharkako balore gisa ulertu behar da eta identitate, izaera eta orientazio eredu guztiak Berdintasun egoera batean eta onarpenaren ikuspegitik mahai-gaineratu”, adierazi du EGK-ko presidentak. Horretaz gain, Olabek azaldu duenez, gidaren helburua “informazio eta baliabide ulergarriak gazteen esku ezartzea da, eta horretarako baliabide teoriko nahiz praktikoak, hala nola, intereseko hainbat material zein gune ere jaso ditugu”.

EGK-ko presidentek, ‘Sexualitatearen Koloreak’ gida “EGKren Berdintasun lan-arloaren eta honen Gaur8 lantaldearen isla” dela adierazi du. “Gure helburua emakume eta gizonen arteko Berdintasun erreala aurkeztea da, uneoro LGTBI+ kolektibo gaztearen bazterketa egoera sexismoaren ondorio dela buruan izanda”, nabarmendu du Olabek.

Identifikatutako klabeetan, EGK-ko presidentak “ikasle nahiz irakasleriaren formakuntza, hezkuntza erduetan Aniztasuna zeharkako balore bezala txertatzea eta informazio eta baliabide ulergarriak gazteen esku ezartzea” aipatu ditu. Era berean, hauetatik abiatuz, baliabide teoriko nahiz praktikoak, hala nola, intereseko hainbat material zein gune ere jaso dira ‘Sexualitatearen Koloreak’ gidan.

Agerraldian, Ageitosek legebiltzarkideei lanean jarraitzeko eskatu die: “LGTBI+ fobia errealitatea da oraindik eta honi erantzuna ematen lehenak administrazioak izan beharko lirateke”. Zentzu horretan, Olabek gehitu du “LGTBI+ kolektiboarekiko tolerantziarekin ez da nahikoa. Errespetua, elkarrekikotasuna eta onarpena oinarri dituen gizarte bat nahi dugu, gazteok ez baitugu ‘garen modukoak izateko baimena’ izan nahi, ‘garen modukoak izatea’ positibotzat jo dadin nahi dugu”. Horretarako gako batzuk ere plazaratu ditu EGK-ko Berdintasun teknikariak. “Egun dauden neurriak betetzea, jada dauden programak eta proiektuak indartzea eta LGTBI+ kolektiboa ahaldundzea”. Eta kolektiboa ahaldundzeko hezkuntzak balio estrategikoa duela gaineratu du, . hezkuntza etorkizuneko hiritarrak eraikitzen joateko espazioa da-eta.